

Sin./Fdo.: FRANCISCO JAVIER ARNAIZ ALONSO DE LECIÑANA - 2026-03-24
KUDEAKETA ADMINIST.ETA HITZARTURIKO INBERTSIOAK BIDERATZ. AT
JEFE/A SECCIÓN GESTIÓN ADMINISTRAT. E INVERSIONES CONVENIDAS

Sin./Fdo.: PILAR TRUEBA FERNANDEZ - 2026-03-24
BIDEEN SEGURTASUN.,HOBEKUNTZA,MODERNIZAZ. ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE SEGURIDAD VIAL, MEJORA Y MODERNIZACIÓN

Sin./Fdo.: JOSE MIGUEL DE LA FUENTE CASADO - 2026-03-24
AZPIEGITURAK GARATZEKO ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE DESARROLLO DE INFRAESTRUCTURAS

Sin./Fdo.: AITOR ETXEBARRIA ATUTXA - 2026-03-24
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

ERABAKIA, zeinaren bidez 2026ko deialdia onesten baita Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei dirulaguntzak emateko, lehendik dauden sarbideen bide-segurtasuna hobetzeko proiektuak idatz ditzaten, udal-titulartasunekoak izanik Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepide Sareko errepideekin lotuta dauden kasuetarako.

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak, errepideen eta bizikleta-bideen arloan dituen eskumen eskusiboak baliatuta, bide-azpiegitura foralak planifikatu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko ardura du, honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 10.34 artikulua; Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) 8 eta 7.a) 10 artikulua; eta, hurrenez hurren, aipatutako legea garatzeko eman ziren 1985eko martxoaren 5eko 17/1985 eta martxoaren 12ko 31/1985 Foru Dekretuak.

Esparru horretan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du.

Bide-segurtasuna funtsezko elementua da bide-azpiegituren kudeaketan eta plangintzan. Errepideen foru-sareak eta udalen ardurapeko sarbide edo inguruneek bat egiten duten lekuetan interakzio-guneak sortzen dira, eta gunehorietan

ACUERDO por el que se aprueba la convocatoria de 2026 para el otorgamiento de subvenciones a municipios del Territorio Histórico de Bizkaia para la redacción de proyectos de mejora de la seguridad viaria de accesos existentes de titularidad municipal que entroncan con las carreteras de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia.

El Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de las competencias exclusivas del Territorio Histórico de Bizkaia en materia de carreteras y vías ciclistas, ostenta la responsabilidad de la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las infraestructuras viarias forales, de conformidad con el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, los artículos 7.a) 8 y 7.a) 10 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y con los Decretos Forales 17/1985 y 31/1985, de 5 y 12 de marzo, respectivamente, dictados ambos en desarrollo de la citada Ley.

En este marco, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

La seguridad vial es un elemento clave en la gestión y planificación de las infraestructuras viarias. La confluencia entre la red foral de carreteras y los accesos o entornos municipales genera espacios de interacción en los que las





tokiko jarduketek modu nabarmenean lagun dezakete bide-sarearen funtzionamendu globala hobetzen. Testuinguru horretan, mugikortasun efizienteagoa, seguruagoa eta foru-sarearekin ondo integratuta dagoena ekar dezaketen esku-hartzeak identifikatu eta proposatzen dituzte udalek beren jardun-eremuetan.

Erabaki honen bidez, halako lankidetzak sustatu nahi dira, eta, horretarako, udalerriek sustatutako ekimenak finantzatzeko laguntza emango da, onura partekatuak sortzen dituztenean eta bidezpiegituren segurtasuna eta funtzionaltasuna indartzen dutenean. Zehazki, laguntza horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako udalentsat dira berariaz, aurrekontuko mugen edo muga teknikoan ondorioz bestela bideraezinak lirakeen jarduketak egin ahal izatea bermatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 101/2022 Foru Dekretuak, Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onartzen duenak, 4. artikuluan xedatzen duenez, Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuari dagokio ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren esku uztea, hark onar dezan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilua da deialdia onesteko organo eskuduna, arau hauetan xedatutakoarekin bat etorri: otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duena, zeinak garatzen baitu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.

Ondorioz, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuaren ekimenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

actuaciones locales pueden contribuir de manera significativa a la mejora del funcionamiento global de la red viaria. En este contexto, los ayuntamientos identifican y proponen intervenciones en sus entornos de actuación que pueden redundar en una movilidad más eficiente, segura y bien integrada con la red foral.

El presente acuerdo busca fomentar este tipo de colaboraciones, facilitando la financiación de iniciativas que, promovidas por los municipios, generen beneficios compartidos y potencien la seguridad y funcionalidad de la infraestructura viaria. En particular, estas ayudas están dirigidas expresamente a los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia, con el objetivo de garantizar que puedan acometer actuaciones que de otro modo resultarían inviables por limitaciones presupuestarias o técnicas.

El artículo 4 del Decreto Foral 101/2022, de 24 de agosto, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el reglamento de estructura orgánica del departamento foral de infraestructuras y desarrollo territorial, atribuye al Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial la competencia para someter la presente resolución para su aprobación a la Diputación Foral de Bizkaia.

El órgano competente para la aprobación de la convocatoria, a tenor de lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, es el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a iniciativa del diputado foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia.





ERABAKIA

Lehena. – 2026ko deialdia onestea, Bizkaiko lurralde historikoko udalerriei dirulaguntzak ematekoa, lehendik dauden sarbideen bide-segurtasuna hobetzeko proiektuak idatz ditzaten, udal-titulartasunekoak izanik Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepide Sareko errepideekin lotuta dauden kasuetarako.

Bigarrena. Oinarri arautzaileak foru-dekretu honetan onetsitakoak dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren 95/2025 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez oinarri arautzaileak onesten baitira Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei dirulaguntzak emateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepide Sareko errepideei lotuta dauden udal-titulartasuneko lehendik dauden sarbideetako bide-segurtasuna hobetzeko proiektuak idazteko (BAO, 2025eko azaroaren 5ekoa, 212. zk.)

Hirugarrena. – Dirulaguntza eskaerak 20 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena. – Dirulaguntzak epigrafe hauei dagokien aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren kontura egotziko dira: 2026eko ekitaldia; ekonomikoa: 73299; programa: 453116; zentro kudeatzailea: 1002; APE: 2007/0742; Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren aurrekontuko 2007/0247 proiektua. Kreditu erabilgarriaren barruan, 200.000 euro izango dira deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa.

Bosgarrena. – Deialdi honen babesean egindako eskaerak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea hiru (3) hilekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik.

ACUERDO

Primero. – Aprobar la Convocatoria de 2026 para el otorgamiento de subvenciones a municipios del Territorio Histórico de Bizkaia para la redacción de proyectos de mejora de la seguridad viaria de accesos existentes de titularidad municipal que entroncan con las carreteras de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia

Segundo. – Las bases reguladoras son las aprobadas por el Decreto Foral 95/2025, de 30 de octubre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras para el otorgamiento de subvenciones a municipios del Territorio Histórico de Bizkaia para la redacción de proyectos de mejora de la seguridad viaria de accesos existentes de titularidad municipal que entroncan con las carreteras de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia (BOB nº 212, de 5 de noviembre de 2025).

Tercero. – Las solicitudes de subvención podrán presentarse en el plazo de 20 días hábiles a partir de la fecha de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia

Cuarto. – Las subvenciones se imputarán con cargo al crédito consignado en la partida presupuestaria que responde a los siguientes epígrafes: ejercicio 2026; Económico 73299, Programa 453116, Centro Gestor 1002, PEP 2007/0742. del presupuesto del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, siendo 200.000 euros la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro del crédito disponible.

Quinto. – El plazo máximo para resolver y notificar las solicitudes formuladas al amparo de la presente convocatoria será de tres (3) meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.





Seigarrena. Ebazpen hau BAO n argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zazpigarrena. – Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Instanzia Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Herri-administrazioek ere errekurtso bera jarri ahal izango dute; hala ere, alde aurreko errekerimendua egin ahal izango dute, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Sexto. – La presente resolución se publicará en el BOB y producirá efectos a partir del día siguiente a su publicación.

Séptimo. – Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sección de lo Contencioso Administrativo del Tribunal de Instancia de Bilbao.

Las Administraciones Públicas podrán interponer idéntico recurso, sin perjuicio de poder efectuar el requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

